



2020ko Antzerkiaren Munduko Egunaren mezua. Shahid NADEEM

2020ko martxoaren 27a

Euskara – **Bertsio laburra**

(Jatorrizko testua ingelesez, euskarazko itzulpena SAREA Euskal Antzoki Sareak egindakoa)

Shahid NADEEM, Antzerkigilea, Pakistan

Antzerkia santutegi gisa

Bulleh Shah poeta sufiari buruzko Ajoka antzerkiko emanaldi baten amaieran, agure bat, haur batek lagunduta, Sufi handiaren papera antzeztu zuen aktorearengana hurbildu zen: "Nire biloba ez dago ondo, bedeinkatu al zenuke?" esan zuen. Aktorea harritu egin zen, eta erantzun zuen: "Ez naiz Bulleh Shah, papera egiten duen aktore bat baino ez naiz". Adinekoak orduan erantzun zuen: "Seme, ez zara aktore bat, Bulleh Shah, bere Avatarren berraragitze bat zara". Bat-batean, antzerkiaren kontzeptu guztiz berria bururatu zitzaigun, non aktoreak antzezten duen pertsonaiaren berraragitze bihurtzen baita.

Bulleh Shah bezalako istorioak esploratzea, eta hau bezalako istorioak kultura guztietan existitzen dira, gure arteko zubi bihur daiteke: antzerki sortzaileen eta entzuleria ezezagun baina sutsuaren artekoa. Agertokian antzezten dugun bitartean, batzuetan antzerkiari buruz dugun filosofiari, aldaketa sozialaren aitzindari gisa dugun eginkizunari jarraitzen diogu, eta komunitatearen zati handi bat atzean uzten dugu. Orainaldiko erronkekin dugun konpromisoan, antzerkiak eman dezakeen esperientzia espiritual guztiz hunkigarriaren aukerei uko egiten diegu. Intolerantzia, gorrotoa eta indarkeria areagotzen ari diren gaurko munduan, gure planeta gero eta gehiago hondamendi klimatiko batean hondoratzen ari da; gure indar espirituala berrezarri behar dugu. Apatia, letargia, ezkortasuna, zikoizkeria eta bizi garen munduarekiko, bizi garen planetarekiko mespretxuaren aurka borrokatu behar dugu. Antzerkiak badu paper bat, rol noble bat, gizateria dinamizatu eta mobilizatzeko, amildegirako jaitsieratik altxatzeko. Eszenatokia, antzezteko espazioa, zerbait sakratu bihur dezake.

Asiako hegoaldean, artistek erreberentziaz ukitzen dute agertokiko zorua zapaldu aurretik; antzinako tradizio bat da, non espirituala eta kulturala dena elkarrekin lotuta zeuden. Bada garaia artistaren eta publikoaren, iraganaren eta etorkizunaren arteko harreman sinboliko hori berreskuratzeko. Antzerkia egitea ekitaldi sakratua izan daiteke, eta antzezleek antzezten dituzten paperen *avatar* bihur daitezke. Antzerkiak badu potentzial eraldatzailea: eszena santutegi bihurtzea, eta santutegi hori antzezleku bihurtzea.